

Ategorrieta Plaza proiektua

RAZ bulegoak 'Ategorrieta plaza' izeneko hirigintza proiektua aurkeztu du Ategorrietako eremua berrantolatzeko, hura biribilgune batek zatikatzen baitu. Zurriola Ikastolak proiektuarekin bat egiten du interesgarria iruditzen zaigulako ingurua eskola-bide segurua, espazio publiko erabilgarria eta zarata eta kutsadurarik gabeko ingurune bihurtzea. Hori dela eta, familiak animatu nahi zaituztegu proiektu honen inguruko [informazioa](#) irakurri eta sortu duten [inprimakia](#) betetzera, proiektuari sostengua emateko.



Udako aisialdia

Ate-joka dugu uda, eta ikastolatik ikasleentzako aisialdi-proposamenak helarazi nahi dizkizuegu. Batetik, [Ikastolen Elkarteko Zirimola](#) aisialdi-taldearen eskaintza zabala duzue eskura. Udaberriko Egonaldiak antolatu genituen elkarte horren eskutik, eta bai esperientzia baita balorazioa ere benetan positiboak izan dira. Hori horrela izanik ere, aurten, egoerak behartuta, ez dugu Zirimolaren udako udaleku irekietan parte hartuko. Bestalde, [Bera Berak](#) Manteo kiroldegian duen eskaintza ere baduzue ikusgai.



Liburuaren eguna

Martxoaren 23a dugu gaur, Liburuaren Eguna, eta liburuak gustuko ditugula ospatzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz hainbat ekintza burutu ditugu goizean zehar: animaziozko laburmetraia, ipuin-kontaktak, idazketa-tailerrak, mikroipunak, gure lanen erakusketa... Begiak irekita amets egiteko aukera paregabea!



LH4koak San Telmo bisita

LH 4ko ikasleak San Telmo museoan izan gara bertako "URETARA!" bisita gidatuan parte hartzen. Gipuzkoarrok itsasoarekin erlazionatutako historia zabala dugu: hondartzak, arrantzaleak, portuak, itsasontziak... Museoan itsasoa gure etxeko atarian izateak nola baldintzatu gaituen ikusi dugu, eta elementu honek zer-nolako aldaketak sortu dizkigun ikusi ahal izan dugu.



Koldo Mitxelena Literatur Lehiaketa

Aurten ere, Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketan parte hartu dugu ikastolako ikasle askok, eta sari eta aipamen ugari jaso ditugu. Zorionak pate-hartzaile guztiei, eta bereziki aipatu eta sarituei!! Hauek dira sarituak: Lore Lasa, Julen Bueno eta Amaia Usin; eta hauek aipatuak: Malen Beobide, Maddi Anza, Iزارo Arrazola, Ander Ansa, Oier Redondo, Iker Peñalba, Oier Torres, Ekai Iraeta, Nagore Etura, Xabier Urkizar eta Ane Gofii.



Hari Orkerstra online

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek online taldeak antolatu ditu, eta Zurriola Musika Eskolako biolineko ikasleek Hari Orkestran parte hartuko dute. 10 musika eskolatako 200 ikaslek parte hartuko dute talde horretan. Gaur egin dituzte gure ikasleek grabazioak, banaka, bikoteka eta taldean, eta ekainaren bukaera aldera estreinaldia egingo dute Youtubeko kanalaren bitartez. Zorionak artistak!



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HH5C-D (Amaia-Ixiar) goizpasa, apirilak 27. HH5A-B (Ainere-Miren) goizpasa, apirilak 30.
- **LH1-6:** Giza Eskubideen Zinemaldiko filmak gelan.
- **LH4:** Iñaki Zubeldia idazlearen bisita. Apirilak 29.
- **LH5:** Heziketa afektibo sexualeko saioak. Apirilak 26 (C), 27 (A) eta 28 (B).
- **LH6:** Ikasle-laguntzaile saioa. C taldea. Apirilak 26.
- **DBH1:** Chromebooken errebisioa egingo da Ikastolan. Apirilak 28.
- **DBH4:** Sexu heziketa. Apirilak 28.
- **Zurriola Ikastolako bekak:** [Informazioa](#).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Brianen Bizitza Portugaleten. Sastraka Gaztetxean. Apirilak 24. 18:00. [Kartela](#).

